

ATXURBIDE ELKARTEA

2026ko SAN BLAS jaietako pregoia



2026.01.31

Arratsaldeon danoi.

Beste urte batez, herriko plaza hontan elkartu gera Axariaren jetsierarekin , SAN BLAS jaiei hasiera emateko.

Aurtengo hontan ATXURBIDE elkarteko kideei tokatu zaigu jaien hasierako pregoi hau egitea.

Esan beharren gaude, benetan pozez hartu genuela festa batzordetik egin ziguten gonbitea, aurten pregoilari izateko.

Gure elkarte honek, ATXURBIDE elkarteak, aurten bere sorreraren 50 urteurrena ospatzen duenez.

Hemen gure artean gaur, sorrera hartan lehenengotako bazkide izan zena gurekin dugu, Justo Goñi. Bere ondoan, Goatseko Juan Mari, hainbat urtetan ATXURBIDE elkarteko bazkide dena, eta baita gaur eguneko Batzordeko ordezkari, nerekin batera.

Poza ematen du gaur, hauen ilusioa ikusteak....

Zuek festak hasteko duzuenaren parekoa bada...

Batez ere ATXURBIDE elkarte hainbeste urtean zutik eta indarrez ezagutu duten bazkide beterano hauek, ez zuten usteko egun baten pregoilari izango zirenik.

Bere sorreratik izan du ATXURBIDE elkarteak herriaren parte izateko asmo hori. Kirola bultzatzea izan delarik bere egitekoetako bat: ATXURBIDE pelotazale elkarte. Bai esku pelotari, palazkoari, bere laguntza eskeiniz, Pelota talde eta laguntzaile moduan.

ATXURBIDE ELKARTEA

2026ko SAN BLAS jaietako pregoia



2026.01.31

Pelotea aipatu det.

ATXURBIDEA juten dien danak, hantxe ikusten due sarrean, bi urtetan jarraien HERRI ARTEKO esku pelota lehiaketa irabazi zuen pelota taldea osatzen zutenen argazkiekin egindako koadroa.

Garai bikaina izan zen hura. Idiazabal herri bezela, pelotaren goiko maillan egon zena...

Gaur egun ere gazteak hor segitzen duten pelotan, pelota eskolan. Segi dezatela, ilusio haundiz eta ea egunen baten berriro ere Izalgo herria pelotako goiko puntara eramaten duten.

Zuetako batzuk, hain gazte ez zaretenak, ezagutuko zenituzten ATXURBIDE elkarteko festak, 80garren hamarkada hasieran.

Artean eraiki berritan zen Adarra auzoan, gaur egun ZEPAI kalea bezela ezagutzen dan hortan ospatzen zirenak: Korrika eta bizikleta karrerak gazteentzat, soñujoleak, lehiaketak eta herriko kirol apustu eta ikuskizunak. Sekulako festa izaten zan.. Hango aizkora saioan ibilitako Otezalgo Bruno, Estensoroko Antonio, Maigoneko Eugenio, Bernardo Etxaluze, Errekaldeko Joxe Mari.... eta beste batzuk gogoan ditugu.

Aurtengo urteurrena ospatzeko, garai hartan bezelako festatxo bat eittea ondo leoke... Eta akaso, sorpresan bat izango da....

ATXURBIDE ELKARTEA

2026ko SAN BLAS jaietako pregoia



2026.01.31

Elkarte bezela, 50 urte hauetan, makina bat ixtori baditu gureak... Mus saio latzak egindakoak badie. Urtea askotan, ostiralero juntatzen zienak musen jokatzeari, eta oaindik gaur egun ere, asteazkenetan juntatzen dienak, Santi del Olmo eta bere asteazkenetako lagunak...

Kantu afariak ere izan die bertan. Herriko bertsolari txapelketako kanporaketak eta bertso saion bat edo beste ere bai....

ATXURBIDEN egindako lagun arteko eta familia ospakizunetako, bazkari - afari bikainak, askok gogoan ditugu. Txuleta mordoa erre die honuzkeo, hainbeste famatzen dan bere parrilla hortan. Izan daitezela hurrengo urteetan ere.

Baino elkarte biziko bada, jendea behar du bere inguruan. Eta hortako bazkide gazteak behar ditugu.

Garai batean Idiazabalgo beste elkarteetan bezela, gurean ere, itxaron zerrendan egon beharra izan zan, bazkide sartu ahal izateko. Gaur egun berriz, lekuak ezin bete...

Gustatuko litzaiguke, gazte jendea ere gure elkarte gerturatzea... Gure ateak zabalik dituzue.

Hori esanda, eskerrik asko aukera eman diguzuelako, urteurren honetan gure elkarte agerian jartzeko herriaren aurrean. 50 urte egin ditugu, eta hurrengo 50arrak hasi ditzagun...

ATXURBIDE ELKARTEA

2026ko SAN BLAS jaietako pregoia



2026.01.31

Oain festatan murgildu gera erabat..

Egun asko ditugu aurretik, gozatu eta disfrutatzeko....

Errespetuz, inori kalterik egin gabe, eta inolako erasorik gabe,
alaitasun betez ospatu ditzagun festak... Denok lagundu
dezagun festa paregabeak izateko...

Egitarau bete betea degu aurretik.... Beraz goza dezagun jai
hauetaz....

GORA IDIAZABAL...!!! GORA SAN BLAS...!!!